



**Mondragon  
Unibertsitatea**

**Escuela Politécnica  
Superior**

**PARSen BERARIAZKO ARAUDIA  
- ONDOZ ONDOKO IBILBIDEAK DITUZTEN  
PROGRAMA AKADEMIKOAK-  
2024-25 IKASTURTEA**



Aurkibidea

1. Aldaketen historia .....	1
2. Sarrera .....	2
3. PARSen egitura .....	2
4. Ikasleen sarrera profiletarako onarpen prozedura eta irizpideak .....	3
5. Programaren parte den unibertsitate masterrean matrikulatzeko gainditu gabe egon daitezkeen graduko gaiak eta/edo irakasgaiak identifikatzea eta justifikatzea .....	5
6. Programaren diseinua .....	6
7. Gradu bukaerako eta Master bukaerako lanak gauzatzeko mekanismoak.....	9
8. Errendimendu akademikoa PARSean eta PARSa uztea .....	10
9. PARSaren jarraipen batzordea .....	11
10. Esparrua eta eskumenak .....	11



### 1. Aldaketen historia

Bertsioa	Data	Egindako aldaketa
1	2024/09/01	<ol style="list-style-type: none"><li>1.- Datak eguneratu dira dokumentuan zehar.</li><li>2.- 2. atala "PARSen izena" ezabatu da.</li><li>3.- PARS ezberdinen kodeak nola interpretatu behar diren adierazi da (orri-oineko oharra)</li><li>4.- PARSer sartzeko profilak zehaztu dira.</li><li>5.- Masterrera sartzeko ingeleseko B2 maila eskatuko dela adierazi da.</li><li>6.- PARSean hautatua izateak enpresako esperientzian eta mugikortasunean izango dituen eraginak zehaztu dira.</li><li>7.- PARSean onartutako ikasleak egingo dituzten 15 ECTS gehigarriak, 2., 3. eta 4. mailetako hautazko ikasgaiei dagozkiela zehaztu da.</li><li>8.- PARSen eskema bakoitzaren hasieran zehaztu da ikasleak noiz parte hartu ahal izango duen enpresa esperientzian edo mugikortasunean.</li><li>9.- PARSean onartutako ikaslearen errendimendu akademikoa espero zena edo egokia ez denean nola jokatuko den azaldu da.</li><li>10.- Araudi honen helburua zein den adierazi da eta gradu eta masterreko araudietara bideratu da gainerako aspektuetarako.</li></ol>
0	2023/09/01	Hasierako bertsioa

## 2. Sarrera

822/2021 Errege Dekretuak honako hau ezartzen du bere bederatzigarren xedapen gehigarrian, Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren arloan Ondoz Ondoko Ibilbideko Programa Akademikoei (PARS) buruz:

Unibertsitateek, beren autonomiaren esparruan, irakaskuntza esperientzia pilotu gisa eskaini ahal izango dituzte gradu titulu bat eta espezializazio profesionalera bideratutako unibertsitate master titulu bat elkarren segidako ibilbide gisa –ondoz ondoko zikloak– lotzen dituzten programa akademikoak, graduaren eta masterraren bereizketa eta independentzia estrukturala mantenduta. Programa horien helburua da ikaslearen formazio integrala indartzea. Programa akademikoaren izenak ezingo du inola ere nahasmenik eragin programa osatzen duten tituluaren bidez lor daitekeen gaikuntza profesionalarekin.

MUko GEPEk PARS ezberdinak diseinatzea erabaki du, elkarren arteko kidesun handieneko graduak eta masterrak konbinatuz, edota Ingeniaritza eta Arkitektura eremuko edozein gradu eta zeharkako eremuko den masterrekin konbinatuz.

Araudi honek MGEPEk diseinatutako Ondoz Ondoko Ibilbidea duten Programa Akademikoak abian jartzeko alderdirik garrantzitsuenak jasotzen ditu eta graduako eta masterreko araudi akademikoak osatzen ditu.

## 3. PARSen egitura

300 ECTS, 330 ECTS edo 360 ECTS dituzten PARSak diseinatu dira (masterraren iraupenaren arabera). Guztiak plaza mugatuekin, ondoz ondoko ibilbide hauek duten izaera experimentalaren ondorioz.

Gradua	Masterra	PARSaren izena	ECTS KOPURUA	PARSaren ibilbidea jasotzen duten eskemak <sup>1</sup>
M2GA	M2MG	PARS Energia eta Potentzia Elektronika Unibertsitate Masterrean, Energiaren Ingeniaritzako Graduaren bidez	330	PARS330SET <sup>2</sup>
	M2MS	PARS Energia Sistema Adimendunak Unibertsitate Masterrean, Energiaren Ingeniaritzako Graduaren bidez	330	PARS330SET; PARS330FEB
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Energiaren Ingeniaritzako Graduaren bidez	300	PARS300SET
M2GB	M2MM	PARS Teknologia Biomedikoak Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza Biomedikoko Graduaren bidez	330	PARS330SET; PARS330FEB
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza Biomedikoko Graduaren bidez	300	PARS300SET
M2GC	M2MH	PARS Industria Ingeniaritza Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza eta Industria Prozesuetako Ekoteknologietako Ingeniaritza Graduaren bidez	360	PARS360SET; PARS360FEB
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza eta Industria Prozesuetako Ekoteknologietako Ingeniaritza Graduaren bidez	300	PARS300SET
M2GD	M2MD	Produktuen eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoa Unibertsitate Masterra, Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Graduaren bidez	360	PARS360SET
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Graduaren bidez	300	PARS300SET
M2GE	M2MG	PARS Energia eta Potentzia Elektronika Unibertsitate Masterrean, Industria Elektronikako Ingeniaritza Graduaren bidez	330	PARS330SET
	M2MS	PARS Energia Sistema Adimendunak Unibertsitate Masterrean, Industria	330	PARS330SET; PARS330FEB

<sup>1</sup> Eskema horiek 6. atalean jaso dira, 'Programaren diseinua'.

<sup>2</sup> PARS330SET= PARS + Gradu eta Masterraren arteko konbinaketaren iraupena ECTStan + ibilbideari ekiteko deialdia. (SET: Iraila; FEB: Otsaila)

		Elektronikako Ingeniaritza Graduaren bidez		
	M2MH	PARS Industria Ingeniaritza Unibertsitate Masterrean, Industria Elektronikako Ingeniaritza Graduaren bidez	360	PARS360SET; PARS360FEB
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Industria Elektronikako Ingeniaritza Graduaren bidez	300	PARS300SET
M2GI	M2MN	PARS Datuen Analisia, Zibersegurtasuna eta Hodei-Konputazioa Unibertsitate Masterra, Informatikako Ingeniaritza Graduaren bidez	330	PARS330SET
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Informatikako Ingeniaritza Graduaren bidez	300	PARS300SET
M2GJ	M2MR	PARS Robotika eta Kontrol Sistemak Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza Mekatronikoa Graduaren bidez	330	PARS330SET
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza Mekatronikoa Graduaren bidez	300	PARS300SET
M2GM	M2MH	PARS Industria Ingeniaritza Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza Mekanikoa Graduaren bidez	360	PARS360SET; PARS360FEB
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Ingeniaritza Mekanikoa Graduaren bidez	300	PARS300SET
M2GO	M2ML	PARS Operazio Logistiko eta Produktiboen zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Industria Antolakuntzako Ingeniaritza Graduaren bidez	330	PARS330SET
	M2ME	PARS Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterrean, Industria Antolakuntzako Ingeniaritza Graduaren bidez	300	PARS300SET

#### 4. Ikasleen sarrera profiletarako onarpen prozedura eta irizpideak

##### Sarrera profilak:

Bi profil ezarri dira PARSerako. Horietako bakoitzean, ikasleak alde aurretik erakutsi behar du gaitasuna duela egin nahi duen PARS horri ekiteko ordura arteko ikasketak ezarritako gutxieneko epean gaindituz, eta motibazio maila handia duela masterreko ikasketekin jarraitzeko.

Honakoak dira identifikatu diren bi profilak:

- 1. Profila.- PARSerako 2. mailan sartzeko: PARS300SET, PARS330SET eta PARS360SET ibilbideetarako.
- 2. Profila.- PARSerako 4. mailan sartzeko: PARS330FEB eta PARS360FEB ibilbideetarako.

Ondoren, profil bakoitzaren ezaugarri eta betebeharrak zehazten dira.

Profil horietako bakoitzak plaza kopuru mugatua izango du.

##### 1. Profila.- PARSerako 2. mailan sartzeko

Profil honi honako baldintza hauek eskatuko zaizkio:

##### Alde aurretik bete beharreko baldintzak.

Lehenengo irizpide nagusia da ikasle interesdunak graduako lehen ikasmaila urte bakarrean gainditua izatea. Ezinbesteko baldintza hori beteta, kontuan hartuko diren gainerako baldintzak ondokoak dira:

- 1.- > = 7ko unibertsitaterako sarbide notarekin sartu da graduako ikasketetara.
- 2.- Urte akademikoa bakar batean gainditu du PARSeko graduako 1. ikasmaila.

3.- Motibazio maila handia duela egiaztatu dute PARSeko arduradunek hautagaitza baloratzeko egin duten elkarrizketan.

Baldintza gehigarriak:

4.- Ikasleak, hautagaitza aurkezten duen unean, ingelesean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko C1 mailaren baliokidea duela balioztatu ahalko du.

**1. profilerako onarpen irizpideak**

PARSera sartzeko lehentasuna izango dute baremo hauen arabera puntuazio handiena lortu duten ikasleek:

Prozesuaren faseak	Irizpideak	Puntuazioa	guztizko balorazioarekiko %
<b>1. fasea: atarikoa</b>	Interesdunak PARSean onartzeko eskatzen du, horretarako ezarritako epean		
<b>1. AUKERA: GRADUKO 2. MAILAN SARTZEA PARSEAN (GRADUKO 1. MAILAKO 60 ECTS-AK GAINDITUTA)</b>			
<b>2. fasea: hautaketa Nahitaezko baldintzak</b>	1.- Gradura sartzeko nota	0 eta 10 artean	%30
	2.- 1. mailako batez besteko nota haztatua	0 eta 10 artean	%40
	3.- Elkarrizketa pertsonala hautagaiarekin	0 eta 10 artean	%15
<b>2. fasea: hautaketa Baldintza gehigarria</b>	Ingeleseko C1 ziurtagiria	0 eta 10 artean	%15
<b>Guztira</b>			<b>%100</b>
<b>Eskatutako gutxieneko puntuazioa, guztira: 6 puntu 10etik.</b>			

2. Profila.- PARSera 4. mailan sartzeko

Profil honi honako baldintza hauek eskatuko zaizkio:

Aldez aurretik bete beharreko baldintzak.

1.- 3 urtean gainditu ditu Graduko lehen hiru ikasmailak (maila bat ikasturte bakoitzeko)

2.- Motibazio maila handia duela egiaztatu dute PARSeko arduradunek hautagaitza baloratzeko egin duten elkarrizketan.

Baldintza gehigarriak:

3.- Ikasleak, hautagaitza aurkezten duen unean, ingelesean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko C1 mailaren baliokidea duela ingelesean balioztatu ahalko du<sup>3</sup>.

**2. profilerako onarpen irizpideak**

Prozesuaren faseak	Irizpideak	Puntuazioa	guztizko balorazioarekiko %
<b>1. fasea: atarikoa</b>	Interesdunak PARSean onartzeko eskatzen du, horretarako ezarritako epean		
<b>2. AUKERA: GRADUKO 4. MAILAN SARTZEA PARSEAN (GRADUKO 210 ECTS-AK GAINDITUTA)</b>			
<b>2. fasea: hautaketa Nahitaezko baldintzak</b>	2.- Graduko 1. 2. eta 3. mailako batez besteko nota haztatua (guztira 210 ECTS)	0 eta 10 artean	%70
	3.- Elkarrizketa pertsonala hautagaiarekin	0 eta 10 artean	%15
<b>2. fasea: hautaketa Baldintza gehigarria</b>	Ingeleseko C1 ziurtagiria	0 eta 10 artean	%15
<b>Guztira</b>			<b>%100</b>
<b>Eskatutako gutxieneko puntuazioa, guztira: 6 puntu 10etik.</b>			

**Onartzeko prozedura**

PARSean onartzeko fasea hasi aurretik, tituluak webgunean publikoki jakinarazi beharko ditu PARSaren diseinua, sarrera profila, eskaintako leku kopurua, onarpen irizpideak eta programan izena emateko eta onartzeko prozesua.

<sup>3</sup> Dena den, Masterrari ekiteko ingeleseko B2 maila duela egiaztatu beharko du nahitaez.

Komunikazio publikoko prozesu horren ondoren, urte horretarako ezarriko den epean, ikasleei eskatuko zaie Ondoz Ondoko Ibilbideko Programa Akademikoan plaza eskatzeko, ingeleseko C1 ziurtagiria erantsiz (ziurtagiria duenak). Beraz, dagokion eskaera finkatutako epean behar bezala betetzen ez duten interesdunek ez dute hautaketa fasean aurrera egingo, eta eskaera ofizioz ukatuko da. Eskaera behar bezala egiten bada baina dokumentuak ez badira aurkeztu edo aurkeztutakoak akastunak badira, hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari eskaera zuzentzeko. Epe hori igarota, ez badu zuzendu, ukatu egingo zaio eskaera.

#### 1. AUKERA: GRADUKO 2. MAILAN SARTZEA PARSEAN (GRADUKO 1. MAILAKO 60 ECTS-AK GAINDITUTA)

Baliozkotutako eskaerak jaso ondoren, MGPEko Zerbitzu Akademikoen Sailak honako hauen berri emango du: hautagaiak gradura sartzeko duen nota eta hautagaiak graduko 1. ikasmailan lortutako batezbesteko haztatua. Lehen baldintza hau betetzen ez dutenak ez dira elkarrizketa fasera pasatuko, eta beren eskaera ofizioz ukatuko da. Lehen baldintza betetzen dutenak, berriz, elkarrizketa fasera pasatuko dira. Elkarrizketa horretan bi Irakasle eta ikertzailek parte hartuko dute (titulu bakoitzeko 1); eta hauek osatuko dute eskaera espedientea elkarrizketaren eta emaitza akademikoen balorazioarekin. PARS-ean onartutako ikasleek ezingo dute graduko mugikortasun ekimenetan parte hartu, ez eta 2. eta 3. mailetan Praktikak (formazio DUALA) egin, ez Curricularrak ez eta Curriculumentik kanpokoak ere.

#### 2. AUKERA: GRADUKO 4. MAILAN SARTZEA PARSEAN (GRADUKO 1., 2., 3. ETA 4. MAILAKO 210 ECTS-AK GAINDITUTA; guztira 210 ECTS)

Baliozkotutako eskaerak jaso ondoren, MGPEko Zerbitzu Akademikoen Sailak hautagaiak 1., 2. eta 3. mailetan lortutako batez besteko nota haztatuaren berri emango du (180 ECTS guztira). Ondoren, elkarrizketa batera deituko dira. Elkarrizketa horretan bi Irakasle eta ikertzailek parte hartuko dute (titulu bakoitzeko 1); eta hauek osatuko dute eskaera espedientea elkarrizketaren eta emaitza akademikoen balorazioarekin. PARS-ean onartutako ikasleek ezingo dute graduko mugikortasun ekimenetan parte hartu.

MGPEko Batzorde Akademikoa arduratuko da espedienteak balorazioaren arabera ordenatzeaz eta Erakundeko PARS bakoitzerako gutxieneko nota ezartzeaz, programa bakoitzerako aurreikusitako plaza kopuruaren arabera.

Bi aukeretako edozeinetan, eskatzaileek jakinarazpen bat jasoko dute beren eskaeraren behin-behineko ebazpenarekin (baiestekoa edo ezestekoa). Ebazpen proposamena ezestekoa den kasuetan, ezespina eragin duten arrazoiak zehaztu beharko dira. Ebazpen horren aurka oinarritutako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu kasuan kasuko ikasleak eta Batzorde Akademikoak berak baloratuko ditu, azken ebazpena emanez.

Berariaz debekatuta dago masterrean lekua erreserbatzeko mekanismoak erabiltzea PARS hasia duten ikasleentzat. Bestalde, graduko unibertsitate titulu ofiziala duten ikasleek lehentasuna izango dute masterrerako matrikulan PARS egiteko onartutako ikasleen aldean.

#### Plaza kopurua

Diseinatutako PARSen izaera esperimental dela eta, PARS bakoitzerako plaza kopurua ikasturtean betetako graduko plaza berrien % 10en baliokidea izango da.

#### 5. Programaren parte den unibertsitate masterrean matrikulatzeko gainditu gabe egon daitezkeen graduko gaiak eta/edo irakasgaiak identifikatzea eta justifikatzea

Hauek dira adierazitako masterrean matrikulatzeko gainditu gabe egon daitezkeen graduko irakasgaiak, PARS guztietan:

- ✚ Gradu denetan Mekatronikako graduan izan ezik:
  - Enpresako praktikak II, 18 ECTS-ekoak
  - Gradu Bukaerako Lana (GBL), 12 ECTS-ekoak
- ✚ Mekatronikako graduan:

- 18 ECTS (7. Seihilekoko ikasgaiak)
- Gradu bukaerako lana

## 6. Programaren diseinua

Bi ibilbide egon daitezke:

6.1.- Hautagaiak graduko 2. mailan sartzea PARSer eta masterra irailean hastea, alde aurretik graduko 210 ECTS gaindituta izanik.

6.2.- Hautagaiak graduko 4. mailan sartzea PARSer eta masterra ikasturtearen bigarren seihilekoan hastea; kasu honetan ere alde aurretik 210 ECTS gaindituta izanik.

Hona hemen bi diseinuak:

### 6.1. Hautagaiak graduko 2. mailan sartzen dira PARSer eta irailean hasten dira masterrean, graduko 210 ECTS gaindituta

Jarraian azalduko den egitura 300, 330 eta 360 ECTS-ko PARSetarako egokitu da.

Lehen maila berdina da tituluko ikasle guztientzat: gehienez 60 ECTS egiten dituzte: Horrela, saihestu egiten da ikasleak kreditu gehigarriekin zamatzea.

Behin ikasleak hautatuta, graduko 2. eta 3. mailan, ikasturtearen ohiko kargaz gain, 15 ECTS gehigarri egingo dituzte. Horrela, 3. mailaren amaieran graduko 210 ECTS eginda izango dituzte: bigarren mailan egin behar dituzten 15 ECTS gehigarriak, 2. edota 3. mailako ikasgai hautazkoen artean aukeratutakoak izango dira; eta 3. mailan egin behar dituztenak, 4. mailako ibilbideei dagozkionak izango dira.

Eskolaz kanpoko jarduerengatik ezingo dira 15 ECTS gehigarrietako kredituak aitortu, ikasten ari den kurtsoari dagozkion ikasgaiak izan beharko dira nahitaez.

Masterreko lehen mailan ikasketa planean aurreikusitako 45 ECTSak (300 ECTSko PARSetan) edo 60 ECTSak (>300 ECTSko PARSetan) egingo dituzte, eta, ordutegi txandakatuan, Graduan egin ez zituzten 30 ECTSak egingo dituzte (praktiketako 18 ECTS eta GBLeko 12). Masterraren 2. urtean, ikasketa planaren baldintzak betetzeko geratzen zaizkien ECTSak egingo dituzte. Modu hontara saihestu egingo da GBLa eta MBLa aldi berean egitea.


Jarraian, eskematikoki erakusten da nola egituratzen den PARSa, masterraren ECTS iraupenaren arabera (60, 90 edo 120):

#### **Eskema: PARS300SET**

- Garrantzitsua:
  - i. Ikasleak enpresa esperientzia 4. urtetik aurrera izango du.
  - ii. Erasmus ibilbidea 5. urtean egin ahalko du ikasleak.




**PARS 300SET ESKEMA**



**Eskema: PARS330SET**

- Garrantzitsua:
  - Ikasleak enpresa esperientzia 4. urtetik aurrera izango du.
  - Erasmus ibilbidea 5. urtean egin ahaliko du ikasleak.


**PARS 330SET ESKEMA**



**Eskema: PARS360SET**

- Garrantzitsua:
  - Ikasleak enpresa esperientzia 4. urtetik aurrera izango du.
  - Erasmus ibilbidea 5. urtean egin ahaliko du ikasleak.

**PARS 360SET ESKEMA**



6.2.- Hautagaiak graduko 4. mailan sartzen dira PARSera eta ikasturtearen bigarren seihilekoan hasten dute masterra, 210 ECTS gaindituta.

Masterrean ikasturtearen 2. seihilekoaren hasieran sartzeko, masterraren seihileko desberdinetako ikasgaien artean mendekotasunik (alegia, aurre baldintzarik) ez dagoela bermatuko da, eta ibilbidea 330 eta 360 ECTS PARSetarako egokituko da.

Ibilbide honen arabera, ikasleek Graduko 210 ECTS egingo dituzte tituluko gainerako ikasleen erritmo arruntetan, ikasturte bakoitzean ECTS gehigarririk egin behar izan gabe.

4. ikasmillako 2. seihilekoan, Master ikasketei ekingo diete, eta masterraren 2. seihilekoko 30 ECTSak bateragarri egingo dira Graduko praktiketako 18 ECTSekin (ahal dela enpresetan), ordutegi txandakatuan.

Hurrengo ikasturtean, Masterraren 1. seihilekoko 30 ECTSak egingo dituzte, eta ordutegi txandakatuan, Gradu Bukaerako Lanaren 12 ECTSak osatuko dituzte, ahal dela enpresan.


Hortik aurrera, masterra 90 ECTSkoa izan, zein 20 ECTSkoa, masterrarekin jarraituko dute tituluko edozein ikasle bezala.

Jarraian, eskematikoki erakusten da nola egituratzen den PARSa, masterraren ECTS iraupenaren arabera, 90 edo 120 ECTS):

**Eskema: PARS330FEB**

- Garrantzitsua:
  - i. Erasmus ibilbidea 5. urtean egin ahal du ikasleak.


**PARS 330FEB ESKEMA**



**Eskema: PARS360FEB**

- Garrantzitsua:
  - Erasmus ibilbidea 5. urtean egin ahaliko du ikasleak.

**PARS 360FEB ESKEMA**



**7. Gradu bukaerako eta Master bukaerako lanak gauzatzeko mekanismoak**

Aurreko eskemetan adierazi den bezala, PARSa egiteko onartu diren ikasleek 12 ECTSko GBLa 18 ECTSko praktikekin batera egingo dute, ikasturte berean edo hurrengo ikasturtean (eskemaren arabera) -ahal bada, enpresa batetan-, lankidetzaz hitzarmen baten edo formazio kontratu baten eremuan. Deskribatutako 30 ECTSak eta Masterreko klaseak aldi berean egingo dituzte, ordutegi txandakatuan.

Ikasleak gutxienez ikasturte akademiko bat izango du GBLa egiteko. Ikasturte hori amaitzen denean, GBLaren memoria aurkeztu eta defendatzeko aukera izango du. GBLa gainditzen badu, Masterraren MBLa hasi ahal izango du; bestela, hura gainditu arte itxaron beharko du MBLari ekiteko. GBLa hasi zenetik bi ikasturte igaro ondoren ez badu GBLa gainditu, PARSa utzi beharko du.

Jarduteko modu horrekin bermatzen da PARSa egiten duen pertsonak modu sekuentzialean lantzen dituela GBLa eta MBLa, eta ezin izango duela Unibertsitate Masterraren kasuan kasuko titulua lortu alde aurretik Graduoko unibertsitate titulu ofiziala lortu ez badu, 822/2021 EDko bederatzigarren xedapen gehigarriak ('Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren arloan ondoz ondoko ibilbideak dituzten programa akademikoak') ezartzen duen bezala.

## **8. Errendimendu akademikoa PARSean eta PARSa uztea**

1.- Kurtsoan zehar ikaslearen errendimendu akademikoa desegokia dela antzemanaz gero, ikasleak PARS-a bertan behera uztera behartzea erabaki dezake titulu taldeak **ikasturte amaieran**.

2.- PARSa PARS300SET, PARS330SET eta PARS360SET eskemen ibilbideei jarraituz egiten duten ikasleek, aukeratutako ibilbidean ezarritako denboran egin beharko dituzte graduoko 2. eta 3. Mailak (60 ECTS ohikoak + 15 gehigarriak). Bestela, PARSa bertan behera utzi eta Gradu eta Master ikasketak bakoitza bere aldetik egin beharko dituzte.

Egoera honetan, behin PARS-a utzita, emaitza akademikoei erreparatu beharko zaie ikasleak Graduoko ikasketak jarraitu ahal izateko. Egoera hauek sor litezke:

- a) Suspenditutako ikasgaiak bakarrik ikasketa planeko 60etakoak izatea (Derrigorrezko edota Hautazkoak)
- b) Suspenditutako ikasgaiak bakarrik 15 ECTS gehigarrikoak izatea
- c) Suspenditutako ikasgaiak multzo bietakoak izatea

Edonola ere, 15 ECTS gehigarrietako ikasgaiak ezingo dira konpentsatu.

Hauek dira ondorioak:

- Kurtsoz pasatu ahal den erabakitzeke, egiten ari den ikasmailari dagozkion 60 ECTS-ak bakarrik (ez kreditu gehigarriak) kontutan hartuko dira. Horrela ba, 3. edo 4. mailara pasatu ahalko da baldin eta suspenditutako ECTS kopurua  $\leq 12$  bada.
- Gainditzeke utzi dituen hautazko kreditu gehigarriak 4. ikasmailara iritsitakoan egingo ditu.
- Ordurarte gainditutako ECTS gehigarriak 3. edota 4. Mailetako hautazko ikasgaiak egin beharrik ez izateko erabiliko dira. Kreditu kopuruak bat ez badatoz, eskolaz kanpoko jarduerekin osatu ahalko ditu ikasleak.

3.- Aurreko 1. eta 2. puntuetan adierazitakoa gorabehera, ezinbesteko kasuetan edo gaixotasun luzeetan, ikasleek ikasturte gehigarri bat luzatzeko eskatu ahal izango diote Batzorde Akademikoari, bukatu ahal izateko. Eskaera ez bada onartzen, edo luzapena eragin duen egoera ikasturte akademiko bat baino gehiago luzatzen bada, ikasleak PARSa utzi beharko du.

4.- Aurreko puntuetan jasotako egoerez gain, PARSa hasi duten ikasleek ikasturte amaieran berau utzi ahal izango dute, bai Graduan matrikulatuta badaude, bai Unibertsitate Masterrean sartu badira. Ikasketa bakoitzean gainditu diren ikasgaiak eta kredituak titulu bakoitza lortzeko metatu ahal izango dira modu sekuentzialean (lehenik eta behin Gradua eta ondoren Masterra), kasuan kasuko ikasleak programa horretatik kanpo ikasten jarraitzen badu.

5.- PARSa Masterrera sartu ondoren utzi denean, maila horretan egindako kredituak behin-behinekoak izango dira, eta ez dira behin betikoak izango Graduoko titulua lortu arte. Behin-behinekotasun hori bi ikasturtez mantenduko da, PARSa uzten den ikasturte aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan ez bada Gradua lortu, PARSean zehar Masterrean onartu ziren ECTSek eragin akademikoak izateari utziko diote.

6.- Erakundeak PARSa amortizatzea erabakitzen badu (edo amortizatu behar badu), hura osatzen duten tituluren bat iraugi egin delako, jarraian zehazten den moduan jokatu da:

a.- PARS300SET, PARS330SET eta PARS360SET eskemen kasuan

Erakundeak amortizatu beharreko titulua PARSak barneratutako Gradua bada, Gradua burutzeko ezarritako ikasturte akademikoez gain beste bi izango ditu, PARSaren barruan edo PARS-etik kanpo (berau utzi beharko balu, eskatutako errendimendu akademikoaren baldintzak bete ez dituelako).



Erakundeak amortizatu beharreko titulua PARSak barneratutako titulua Masterra bada, oraindik Gradua egiten ari bada, aukera emango zaio PARSa utzi eta Gradu ikasketekin jarraitzeko ondoz ondoko ibilbidea duen programa akademikotik kanpo, edo bere plaza interesdunak aukeratzen duen antzeko eskemako beste PARS batean erreserbatzeko.

B.- PARS330FEB eta PARS360FEB eskemen kasuan

Kasu horietan, PARSa hasi duen pertsona Gradu eta Master ikasketak aldi berean egiten ariko da. Interesdunek bi ikasturte gehigarri izango dituzte amortizatu behar den titulua osatzeko, PARSen barruan edo PARS-tik kanpo (berau utzi beharko balu, ez dituelako bete eskatutako errendimendu akademikoaren baldintzak).

#### **9. PARSaren jarraipen batzordea**

PARSen izaera esperimental dela eta, erakundeko Batzorde Akademikoak jarraipen berezia egingo die programa horiei, ikasleek lortutako garapena eta emaitza akademikoak aztertzeko eta baloratzeko.

#### **10. Esparrua eta eskumenak**

Araudi akademiko honek Ondoz Ondoko Ibilbideak dituzten Programa Akademikoak (PARS) arautzea du helburu, Gradu eta Masterreko araudiek xedatutakoa osatuz. Horregatik, kasuan kasu, dagozkien araudiak hartu beharko dira kontutan oinarri gisa.

Batzorde Akademikoak egokitzat jotzen dituen nahi beste arau gehigarri onartu ahal izango ditu, araudi honetan azaltzen ez diren kontuei erantzuteko, beti ere PARSaren inguruan.

Batzorde Akademikoak, araudi honetan xedatutakoari jarraituz, PARS irakaskuntza jarduera eta jarduera akademikoa zainduko ditu, jarduerok modu egokian burutu daitezen, eta bere eskumenaz baliatuz hobekuntzak proposatu ahalko ditu, hezkuntza komunitateari eta GEPEko tituludunak hartzen dituzten enpresei zerbitzurik onena emateko.

Arau horiek MGEPen matrikulatutako ikasleentzat dira. Ez betetzeak hutsegite arin edo larritzat har daiteke, eta hauen kudeaketa, irakaslearen, Tituluko koordinatzailearen edota Koordinatzaile Akademikoaren ardura da. Aplikatu beharreko zigorra bat edo beste izan daiteke, hurrenkera honetan: ahozko ohartarazpena, idatzizko ohartarazpena, azterketetarako eskubidea ezeztatzea, espedientea irekitzea eta kanporatzea.

Araudi honetan xedaturik ez dauden kasuetan Batzorde Akademikoak hartuko du erabakia, interesdunak aldez aurretik eskaera eginda eta kasuaren inguruabarrak aztertu ondoren. Batzorde honi dagokio araudi honetan xedatutakoa salbuestea batzordekideek hala adostuz gero.

Araudi hau 2024-2025 ikasturtean zehar egongo da indarrean.

Arrasaten, 2024ko iraila